ño lenago, jai andija ixango da, sendi-baruban ospatutekua: Gabon.

Euzkotarak antzin-antziñetik ospatu dabe jai ori poz-pozik eta maŕero. Egun oretan sendi osua batuten ekanduba da, ta sendijarekin batu ta apalduteko bide luziak egiten euzkotarak oituta dagoz.

Euzkeldun neskatil maite orek, "Euzko-Deya"'ren irakurle oro: Gabon alai-pozkoŕa igaro egixube aurtengua.

Eta Jayo-barijari, Josu maŕetxubari, sendi-zoruna, sendibakia eskatu egitsozube. Baña euzkeraz eskatu, umetxu maŕagari orek euzkeraz ederto daki-ta.

ETXAKIN.

## ORDU LAŔIYAK

Zenbat aldiz zuk atsekabea,
samindu biezu biotz nerea?...
Zabiltz beti,
gira-ta-bira nere inguruan,
nere biotza uratzen alegin osoan...
txit gogorki...
¿zergatik dirazu orela jaraitzen?...
¿etzera oraindik nizaz kupitzen?...
¡zital ori!

Nere urte laburak ludi ontan,
txit luziak dira naigabietan;
zenbat arantzak,
¡ai! nere biotza odoldu duan;
¡ai! zauri sakonok, ditubanak
gaxo-gaxuak...
poz-atsegiña bere osagari
iñundikan ere ez dala, ageri...
¡beti itzalak!

Zenbat aldiz, atsekabea,
samindu biezu biotz nerea?...
Zenbat eratan
nere biotz gaxua ikertu dezun,
ta malko garatzak ixuri erazi dizkiyozun!
¡ai zer saritan
il-soñuarekin bera negartuaz,
maite-maite zitun izatiak kenduaz.
bildu dezun samiñetan!

Gaur ikertzen nazu, ¡ai zer gogorki!...
aide maite bat itxasoak dit iruntsi...
¡biotz nerea!
orenbeste miñekin, ¿nola bizi zera?...
atsekabea: ¿zergatik zatoz beti nigana?...
Edo... ¡atoz atsekabea!
¿Goikoa'k nigana bidaldu zaitu?...
¡Onetsia izan dedilla! Orela nai ba-du...
¡egin bedi nai Berea!

TENE.

## DEBA

*Arpidia*

"Zumaya" ta "Felipa" itxasontziyetan galdu diranen sendiyentzat irekiya arkitzen da Batzoki onetan.

*Deba'ko "Euzko-Gastedia"*
*Iturkale-5-1'an.*

## Arana-Goiri'tar Sabin'en oroizko itzaldiya

Bazkide, abertzale, euzkeltzale eta gañeantzoko-euzkotar guziyoi.

Agur.

Atzo bete ziran amairu urte Euzko-Alderdi-Jeltzaliaren irasle edo fundadoria il zala.

... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ...

Ez det itz-egin nai abertzalien irakasliaren oroipenez bakarik. Itz-egin nai det euzkotarak gaur daukagun zoritxaratzaz eta euzkotar askoren egikizun lotsagariyatzaz ere.

Bai, benetan lotsagariyak eta negargariyak dira gaurko eguneko euzkotar asko ta askoren egikizunak.

Guziyok anayak gera, ta une guziyetan alkarekin burukan gabiltza, geren burubei arika egiten diyegula. ¿Zergatikan au? Euzkotar geyenak buru-gabeak geralako. Buru-gabekeri au adiyerazteko, itz-egin biar det karlataren gudate edo gerate ikaragari-yatzaz, eta ikusiko dezute gaurko gure zoritxara zer dala-ta dan.

1.833'garen urtian (orain berogeitairu urte) españarak, liberal-karlistak, gerate galgari bat sortu zuten. Eta gerate aren ondorenak, zigorarekin batera ekari zuan negargaritzarik aundiyenetakua euzkotar zintzoen artera.

Euzkotarak biyotz-bigunak eta iñori lagundu naikuak beti izan oi-gera, eta gure guraso zarak ere iñori on-egin -nayak galdu zituan.

**Zoritxarez, sortu zan aitatu detan** gudate **galgari** ura, eta **españarak** laister **ziran laguntza**-eske **euzkotarengana. Lendabizi agertu** zana **V/Karlos izan** zan.

Aurez oldoztuta, noski, etori zan euzkotarak pakian zeuden lekura, eta buruba makurturik, itz-egin zuan, gei gutxi onela: Euzkotarak: España'n guda (gera) bat sortu da Uskurtza edo erlijiua galdu-niarik, eta ni naiz erlijiuaren aldez jeiki naizena nere gudaroztiekin. Baña biar-aña gizon ez-'et aurkitzen garalle irtetzeko, ta zuek Uskurtza-zaliak zeratenezkero, Jaungoikua'ren izenian lagundu nazazute."
ketzuen artian

ra zein poliki ta leun mintzatu zan Carlos euzkotar pa-
Euzkotarak, itz leun ayek aditzian, ziñisturik geldiru ziran. Gero, !jakiña!, gertatzen dira gudarako, ta **gizajuak**, etxietan negar samiña utzita, an dijuaz mendi-**gañetara** il -zoriyaz, Jaungoikotasuna defenditzen dutelakuan. ¡Bai,
Il-zoriyaz atzeritaren ogasun edo interesak defenditziaren
Gudate artan zer gertatu zan adiyerazteko, entzun abesti zar au: "Foruak eta Eleiza arturikan aitzeki, amaika tutunte joiastu zan ederki. Karlos etzala poruen alde, gaur edozeñek ba-daki: euzko-odolakin etzan jostatu gaizki."

... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ...

Auxe bera gertatu zitzayen orduko euzkotarei. España'k da: "Ondo egiñaren pagua, ate-ostian palua."
bikaña birindu-ondoren, bukatu zan gudea ikaragari ura.
Euzkotar ayek uste zuten len bezelako azkatasunan ja-
¿Nork etzuan uste izango? Baña ¡bai zera! Esaera ba-
Bizirik geldiru ziranak, etxeratu ziran. Eta ondoren, ede-
Jo ta jo. Bosten bat urte igaro ziran. Eta euzko-gasteri
raren begira zeuden gizajuak.
be zirala.

bere begiak ezari zizkan Euzkadi'ri, adierazirik andikan aurera Gipuzkoa, Bizkaya, Nabara ta Araba bere bendian izango zirala. Lengo illako 25'kn bete ziran irurogeita amasaspi urte España Euzkadi'ren jabe egin zala.

Ordurarte, Euzkadi azke edo libre bizi izan zan, biar izaten ziran lege ta arazuak bertako semiak egiten zituzte-